Ekki (Euskal kulturgileen kidegoa) ohiko galderak:

https://www.ekki.eus/

(Hemen esteka eguneraketak ikusteko: Ekki FAQ)

Jokin Erkorekarekin izandako elkarrizketetatik ateratakoak.

1 - Zein prozedura jarraitu beharko genuke abesti hoiek sgaetik Ekkira pasatzeko?

SGAEtik baja hartu dezakezue. Atxikituta doatzun gutun eredua erabil dezakezue baja eskatzeko. Orain eskatuta (ekainaren 30a baino lehenago), 2021eko urtarrilaren 1ean osatuko litzateke baja haien aldetik.

2 - Zenbat denbora igaro daiteke batetik bestera pasatzeko?

Behin baja eskatuta, guk bazkidetu ahal zaituegu, eta beraz automatikoki urtarrilaren 1ean SGAEtik EKKIra pasatuko zintezkete.

3 - Kudeatzen dituzue CC lizentziak? Gure CC lizentziadun abesti bat telebistan ateratzen bada, non comercial denez, reklamatu ahalko litzateke ezta?

CC lizentzietako batzuekin bateragarria da gure kontratua. Kasu honetan, ulertzen dut zuena CC-BY-SA-NC dela. Eta bai, lizentzia horrekin, guk zuen izenean kobratuko genituzke soilik ordainketa hutsekoak deritzen eskubideak, TB eta irratiei dagozkienak alegia. Hala ere, guk eskeintzen dugun kudeaketa malgua da, sortzaileari doitzen saiatuz. Kontzertuen ordainketari dagokion kezka ohikoaren kasuan, adibidez, guk aukera ematen diogu bazkideari non kobratu eta non ez erabakitzeko; era berean, autoproduzitutako CDak egitean ez diogu bazkideari bere buruari erreprodukzio eskubidea ordainarazten.

SGAEko bazkide izanda berdin da CC lizentziak ezartzea obrei: SGAEk berdin berdin kobratuko du, baja hartzen ez baduzu.

4- Taldekide guztiak batera pasa beharko ginateke sgatik ekkira?

Ez da derrigorrezkoa. Taldekideak erakunde desberdinetan egon daitezke, eta erakunde bakoitzak bere pean dauden bazkideen izenean kobratuko luke proportzionalki.

5 - Zer gertatzen da abesti zaharrekin? Denak pasako ez bagina eta abestiak boston artean badaude banatauta sgaen?

Abesti zahar zein berriak banatuta geratuko lirateke azaldu dizudanez, EKKIn daudenen zatia EKKIk kudeatuko luke, eta SGAEn daudenena haiek.

6 - Orain telebistarako programa baterako karetan gure abesti bat sartuko dute CC dena. Hori zuengandik kobratu ahalko genuke?

Bai, kobratu ahalko genuke, eta ziurrenik SGAE kobratzen ari da orain.

7 - Atzera begira zenbat denborako eskubideen reklamazioa egin daite Ekkin? Sgaen 5 urte dira .

Atzera erreklamatzeko akzioa 5 urtekoa da, Jabetza Intelektualeko legeak hala ezarrita. Beraz, zentzu horretan, guk SGAEk beste erreklamatu dezakegu.

8 - Zalantza izan dugu taldean ia Sgaen registratu daitezkeen kantuak CC formatuan. Egin daiteke?

SGAEk kudeaketa bazkideka egiten du. Horregatik, nahiz eta obrak altan ez eman, SGAEko bazkide bazara, zugatik kobratuko dute. Zuk CC lizentzia bat jarri arren obra bati, SGAEko bazkide bazara, haiekin daukazun kontratuak balio gabe uzten du CC lizentzia, haiekin hartu dituzun kontratu bidezko konpromisoak balioztatu ditzazketelako. Obra bati CC lizentzia bat jartzeko, SGAEn ezin zara egon. EKKIn, ordea CC lizentzietako batzuk (CC-BY-SA eta hori baino hertsiagoak direnak) bateragarriak dira bazkidetza kontratuarekin.

9 - Abesti erregistratuak non geratzen dira aldaketa egitean? Zaharrak sgaen betiko? Eta abesti berri bat ekkin registratuko bagenu eta autoreetako bat sgaen balego oraindik. Izango luke bere portzentai hori reklamatzeko aukerarik sgaen dagoenak?

Bazkidetza aldatzen duzunean erakunde batetik beste batera, zure egiletzaren zatia batetik bestera aldatzen da. Hau da, kanta bat kudeaketa erakunde baten altan emateagatik ez dira kantak horren kudeaketapean geratzen betirako: zurekin aldatzen dira. Informazioa kudeaketa erakundearen baitan dago, eta beraz kudeaketa erakundea aldatzean atzerako informazio guztia traspasatu behar da batetik bestera. Talde bereko kideak kudeaketa erakunde desberdinetan badaude, erakunde bakoitzari dagokio egiletza zati bat kudeatzea.

Noski, errezagoa da talde bereko eskubide guztiak erakunde bakarrak kudeatzen baditu, baina iraganean gertatu izan zaigun zeozer da eta ez du zertan arazo bat izan behar. Hori bai, taldekideetako bat SGAEn dagoen bitartean, CC lizentziek ez dute baliorik izango obra horien gainean.

Errejistroa beste gauza bat da (obrak zureak direla demostratzeko bide bat, Eusko Jaurlaritzak kudeatzen duena).

Informazio gehiago:

https://www.ekki.eus/nortzukgaren